

Egia

Zeruko Argia, 371. zk., 1970-04-12: 3.

Egia ez da *kaja* bat.

Kaja batek amabi ertz eta sei aurpegi ditu: bixta dunak begiz erraz ikusiko dizkio kajari itxura eta kolorea. Ala ere, jaka sinple hau ez dute gizon guziek (horretara ahaleginduta ere) toki berdin-berdiñetik begizatuko eta itxura ber-berekoa ikusiko ezin bait dira garai berean toki ber-berean egon; eta itxura-beste ere: argiak alde guziak berdin argitzen ez ditualako eta gizonaren begiak berak ere maiz daltonismo-gaitz horrek jota daudelako, begi guziek ez dute kajaren kolorea modu berean sumatzen.

Ikusten dugunez, *kaja bat bezin ximplea* balitz ere ez genduke egia danok berdin ezagutuko.

Eta egia ez da gehienetan ximplea izaten, *oso-oso konplejoa* baizik.

Egiak ez du berez gorputzik eta itxurarik, ez du margorik; ezin dugu bistaz ikusi; egia osatuko liguteken egi-gaiak askotan falta zaizkigu, eta bildu ditugula uste dugunean ere arrazoiz (*gizon-arrazoiz*), sentipenez, irudimenez, suma-bidez, ikusi eta pixatu behar ditugu, eta *ba* dakigu gure suma-bideak zein irudikorrek diran, eta gure arrazoiak zein etorkorrek eta gurekorrek izaten diran; bai *besteenak* eta baita *gureak* ere!

Ala (eta oso maiz gerok uste gabeen) *ertzez izartuta* dauden egiak ere *borobillak* iruditzen zaizkigu.

Gizona jakiñaz gezurretan ari ohi da askotan; halaxe komeni zaiolako. Baiñan, bestalde, gizon bat izan daiteke egi-zale, eta ez-jakiñez oker egon; ez-jakiña ez da beti ez-jakite honen barren-ezaguera duana, gehienetan bestalde: ba dakiala uste duana; eza ez-jakin itsu hau dugu ain bildurgarria dan *fanatikoa*:

Ara 1968-go abenduaren 26-ean Caracasko *El Nacional* izparringiak zekarren berri baten izen-burua: "*Mundua plano dala sinisten dutenak berean trinko daude oraindik*". Londresko United Press berrikariak dionez: Britaniako Ludi Plano Elkartekoak "Apolo-3"k bialdutako argazkiak ikusi eta gero ere ez omen dute mundu hau borobilla danaren ziurtasun osorako probarik izan, eta oraindik urrunagotik (Illargi tik-edo) artutako ludi-argazkiak ikusten ez dituzten bitartean *gure Lurra plano bat omen da*.

Arrezkero argazki hoiek ere ikusiak dituzte, baiñan izango dira oraindik uste setatsu horri erantsita il arte eutsiko diotenak.

Egia nola ezagutu ordea?

Egia oso iheskorra da; *fanatikoa* eta *fede txarrez edo berekoikeriz* gezurretan dabillena utzi ditzagun biak, hoiien gaitzakeria agerigoa izaten da gehienetan-eta; *alperkerian* bereari eusten dagoanak ba du erremedio errezagoa, eta alperrei zirikatzen jarri behar luke lan hori egin ahal duanak; *fede onez* (eta nahiz eta oker egon) *egia dala uste duana* bide onetik dabil.

Zalantza baita egia pixatzeko erabili genezaken balantzaren aztaorratsik onena.

Orrats horri begira dabillena, egia poltxikoan daukala uste duanak baiño errezago arkituko du *egia*. Egiaren billa dabillenaren utsak obeak dira, milla aldiz!, siniskeriak eta maliziak baiño. Gehienetan okerretik ibili behar izaten du gizonak egia arkitzeko. Fermi italiar jakintsuak 1942-go abenduaren 2-an Chicago Universityn lehenengo pila-atomikoa lanean jarri zuanean, arritzekoa da, baiñan alperrikako eunka ta eunka ariketa eta *utsen* (gezurren) *ondoren ona* (egia) izan zan.

Nahiz eta oker egon, egi-billatzearen zuzentasuna eta fedea beti jaso eta zuzendu ohi du gizona; bestalde, berak asmatu duan erdi-gezur edo egi-erdi bat santutzeko gizonak egiten dituanak beti jetxi eta okertzen du; ala, askotan guetako bakoitzaren siniskeri-alperrak ontzat artu iriz-kide ez ditugunei etiketa beltz edo zuri edo gorri zinzillikatu eta lasai geratu ohi gera.

Baiñan egirik gabe ez dugu, ez gizatasunik, ez askatasunik lortuko; eta komunikazio-bideetan gabiltzanen artean egia milla aldiz beharrezkoagoa dugu: gure gezurrak millaka kutsatu ahal bait ditzake eta bestetik gure egiak millaka zuzendu ahal.

Graham Green idazle ospetsuak Buenos Airesko Pen Club-en eraturako batzar batean (1962-go urriak 3-10) zion bezela: "Idazlearen *lana* egia esatea da"; John Dos Passos, ipar-ameriketako idazle iaioak ere berdintsu, eta indartsuago bereizi zuan behar nagusi-nagusi hau: "Idazlearen *eginbeharra* egia esatea da".

Bestaldetik, eta guk ondo dakigun bezela: *giroa* bera da askotan errudun.

Andre Maurois idazle jatorrak batzar berean esana: "*Askatasunik gabe ez dago egirik*".

Ala ere, idazleak ba du, eta bere maillan, apaizak eta dendagilleak eta lege-gizonak berean duten erantzun-beharra: *ezin dala*-koak ez du idazlearen konzientzia erreze pakeatuko.

Egia urri dabil gure artean aspaldi.

Nork-nori esan dionaren aho-belarriz gabiltzan bitartean ez dugu gure artekorik argituko; ahopide eta berriketak osatzen duan enziklopedia zahar, xeblete eta kankaillu hori pozoi utsa da.

Egia ez zaigu lo gaudela ametsetan bezela, etorriko. Egia entzun, ikasi, sufritu eta irabazi egin behar dugu.